

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### 2020ko otsailaren 10eko jakinarazpena, udal biztanle erroldan ofizioz baja ematen duen 1/2020 prozeduraren berri ematen duena

Ondoren adierazten den pertsonari, saiatu arren, ezin izan zaionez jakinarazi udal honek jakin duela Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren erregelamendua onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 54. artikuluan xedatutakoak ez dituela betetzen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan xedatutakoa betez, hau jakinarazten zaio:

NORTASUN AGIRIA	BAJA IZAN DENEKO HELBIDEA	KONTZEJUA
X6181992Y	El Horno kalea, 5	Berantevilla

Udal honetako alkateak otsailaren 10eko 14/2020 Dekretuaren bidez hau ebatzi du:

“LEHENENGOA. Jarraian aipatzen den pertsonari ofizioz abiaraztea Berantevillako Udalaren biztanle erroldan baja emateko espedientea, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik, eta izapideteei ekitea:

NORTASUN AGIRIA	BAJA IZAN DENEKO HELBIDEA	KONTZEJUA
X6181992Y	El Horno kalea, 5	Berantevilla

**BIGARRENA.** Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren erregelamenduaren 72.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hamabost egun ematea interesdunari udal bulegora etor dadin, 09:00etatik 14:00etara, espedientea aztertu, bajarekin ados dagoen ala ez esan eta egoitza non duen egiaztatzeko egoki jotzen dituen alegazioak, agiriak eta argibideak aurkezteko. Ohartarazten zaio, halaber, epe horretan erantzunik jasotzen ez bada, espedientea-ekin jarraituko dela, harik eta Berantevillako udal biztanle erroldan ofiziozko baja gauzatu arte.

**HIRUGARRENA.** Ebazpen hau argitaratzea Estatuko Aldizkari Ofizialean, ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44. artikuluan ezarritakoarekin.

**LAUGARRENA.** Bat etorritik Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluekin, alkateak ebazpen honen berri emango dio Udalbatzari hurrengo ohiko bilkuran, dagozkion legezko ondorioak izan ditzan.”

Horrako hori jakinarazten zaio jakinaren gainean egon eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Jakinarazten zaio, halaber, hamabost eguneko epea duela, iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, entzuna izan dadin.

Bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 112.1. artikuluan ezarritakoarekin, ebazpen honen aurka ez dago errekurtsorik jartzerik, izapidetze hutsa baino ez da eta. Izapide honen aurka dagoela alegatu ahal izango du, eta alegazio hori prozedurari bukaera ematen dion ebazpenean hartu ahal izango da aintzat.

Berantevilla, 2020ko otsailaren 10a

*Alkatea*

**MARIO PEREA ANUNCIBAY**